



AZPEITIKO
ARGAZKI
ELKARTEA

XI. GAU-TXORI (GAUEKO) ARGAZKI RALLYA Azpeitia 2020ko otsailak 8



Oinarriak

- 1.- Memoria-tarjetadun **kamera digitala** duen edonork parte hartu dezake.
- 2.-Izen-ematea 10 €-koa izango da eta 20 €-koa afarira apuntatzen denarentzat, **guztira(inskripzioa+afaria)**. Rallyaren egun berean ordaindu beharko da Azpeitiko Argazki Elkartearen DINAMOA KULTUR GUNEA (SOREASU) 19:00tatik 20:00etara.
- 3.- Partaide bakoitzak bere memoria-tarjeta ekarri beharko du, **guztiz hutsik**. Argazkiak Azpeitian ateratakoak izango dira, txuri-beltzean edo koloretan egin ahal izango dira, JPG formatuan eta kalitate hobereanean.
- 4.- Rallya 01:00ean amaituko da **AZPEITIKO ARGAZKI ELKARTEAN**, tarjetak ordenagailuan deskargatuko direlarik. Gehienez 36 argazki aurkeztu ahal izango dira (kontroleko argazkia barne), **ezabatu ahal izango direlarik**. Argazkiak ezingo dira manipulatu.
- 5.- 2020ko otsailaren 13a baino lehen partehartzaileek gai bakoitzerako argazki bat aukeratu eta argazkiakaae@gmail.com helbidera korreo bat bidali beharko dute, **partaide zenbakia** eta gai bakoitzerako hautatzen den **argazkiaren zenbakia** adieraziz.
- 6.- SARIAK:
Bilduma onena.....150€ eta garaikurra
Bigarren sailkatua.....100€ eta garaikurra
Hirugarren sailkatua.....70€ eta garaikurra
Herriko Lehen ez saritua.....garaikurra
- 7.- Saritutako argazkiak elkarte antolatzailearen esku geldituko dira, zeinek egoki iruditzen zaion moduan erabili ahal izango dituen, beti ere, egilearen izena aipatuz.

OHARRA:

AAEk, ez du bere gain hartzen ekintza garatzen den bitartean pertsonengan, argazki ekipoetan edota edozein ondasunetan sor daitezkeen kalte edota hondatzearen aurrean inolako erantzukizunik. Ekintzan parte hartzen dutenak izango dira beren buruaren, argazki ekipoen eta ondasunen arduradun bakarrak, eta baita ekintza garatzean hirugarrengoei eta bere ondasunei sor lekizkiekeen kalteenak ere. Ekintza honetan parte hartzeak berekin dakar arauok erabat onartzea

Azpeitian 2020ko urtarrilla